

Zuiako Gau Eskola

Osasun Zentro berria

M8 Bizitzak erdigunera!

2019. urterako udal aurrekontua

Zuiari buruzko inkestaren emaitzak

Elkarrizketa: Javier Ruiz de Larrinaga

2019ko udaberria

ZUBIA

Zuia udalerriko aldizkaria



Berriak

- 3 Martxoak 8: Bizitzak erdiguneral
- 4 2019rako aurrekontua
- 6 Zuiarrek onesten dute udal kudeaketa
- 9 Osasun Zentro berrira, azkenik, baimenduta
- 10 Elkarizketa: Javier Ruiz de Larrinaga

Atalak

- 12 Ikastetxe publikoak. Virgen de Oro eskola
- 13 Udal liburutegia
- 14 Bailarako taldeak. Cau Eskola-AEK Euskaltegia
- 15 ZubiAgenda



#M8

#ErakundeAdierazpena
#ZuiaBerdintasunerantz

Bizitzak erdigunera!



Pasa den Martxoaren 8ra harira, eta azken urte hauetan gertatu izan den bezala, Zuiako Udalak erakunde adierazpen bat onetsi du Emakumeen Nazioarteko Eguna babesteko.

Gobernu-taldeak Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun teknikariak aurkeztutako dokumentua proposatu zuen; gure eskualdean mugimendu feministarekin batera garatutako prozesu parte hartzaile baten ondorioa dena, hain zuzen ere. EAJ-k, bere aldetik, Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarrekin egindakoa planteatu zuen. Eta hori izan zen, azkenean, onartzeko behar ziren botoak lortu zituena.

Adierazpen horren bidez, mugimendu feministak deitutako greba zela eta, udalak ardura hartu zuen udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko. Eta herritarrak deitu zituen Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotuta mugimendu feministak Martxoaren 8rako deitutako mobilizazioetan eta ekitaldietan aktiboki parte hartzera.

Jarraian, dokumentuaren testua irakur dezakezu, erabat indarrean dagoena, eta Zuiako emakumezkoen eskubide eta beren aldarrikapenen aldeko jarrera adierazten duena.

Erakunde Adierazpena

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-etenaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, "Bizitzak Erdigunera!" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartu ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta *Bizitzak Erdigunera* jartzea aldarrikatu dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki? Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdigunera jartzeko ordainduak eta ordaindu gabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela. Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorrak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Zuiako Udalak erabaki ditu berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko ardura, eta zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunera jartzeko ardura ere bai.

ZUBIA - Zuiako udalerriko aldizkaria - 2019ko udaberria
Azalaren argazkia: Gorbeia Gune Turistikoa

Edatzailea: Zuiako Udala - Udal Plaza 1 - Murgia 01130 - ARABA - T_945 430 005 - zuiako.general@ayto.araba.eus - www.zuia.eus - Koordinazio eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil - Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com - Inprimaketa: www.graficasirudi.es - Ale kopurua: 1.100

ZUBIAko testuak edota argazkiak zabaltzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.
Irakurri ere udalaren sare sozialetan:



www.facebook.com/ZuiakoUdala



[@ZuiakoUdala](https://twitter.com/ZuiakoUdala)

#2019koZuiakoAurrekontua

2019. urterako udal aurrekontua, onartuta



Aurreikusitako gastua 3,3 milioitik gorakoa da. Administrazio Batzarrei esleitutako diru-laguntzek lehentasun osoa izaten jarraituko dute. Eta gauza bera, gizarte-koehesioaren arloak; aurten, gainera, bi partida berri sortu dira. Udal kontuak EHBilduk, gobernuan ari den taldeak, eta ZBG talde independenteak emandako botoekin onetsi dira. PPko zinegotziak aurkako botoa eman du eta EAJ abstenitu egin da.

Zuiako Udalak 2019ko udal aurrekontua onetsi du. EHBilduren gobernu-taldeak aurkeztutako kontuak, 3.375.047'02 eurokoak, parte-hartze prozesuaren ondorio dira, azken urte hauetan egin izan den moduan. Hasierako proposamenari, gobernu-taldeak diseinatutakoari, gehitu baitzaizkio udalaren kontzeju guztietan egindako bilera parte-hartzaileetan sortutako ekarpenak. Era berean, aurrekontua Zuiak Batzen Gaitu, ZBG talde independentearekin egindako lanaren emaitza da, eta egite-prozesuaren ondoren, pasa den urtarrilaren 24an egindako osoko udalbatzarrean onartu zen. Kontuak EHBilduren gobernu-taldearen (4 zinegotzi) eta ZBG taldearen (3 ordezkari) aldeko botoekin atera dira aurrera. EAJ (3 kontzejal) abstenitu egin zen, eta PPK (zinegotzi 1) aurkako boto bakarra eman zuen. Hurrengo lerroetan partida nagusiak laburbilduko ditugu:

Gizarte-partida berriak

Udal aurrekontuek zenbait partida berri ekarri dituzte 2019 urterako. Horien artean, nabarmentzen dira udalerrian eskainitako gizarte-laguntzak hobetzeko helburua duten bi partida. Horietako batek, 10.000 euroekin, etxeko laguntza-zerbitzua hobetu eta osatzea du helburu: udalak zerbitzu bat kontratatuko du etxeko laguntza-zerbitzuko pertsonalak egin ezin ditzakeen arreta eta zaintzak modu berezituagoan eskaini ditzan, esate baterako, psikomotrititatea edo buru-bizkortasuna espezifikoki lantzeko jarduerak. Beste alde batetik, ZBG taldeak proposaturik, 16.000 euroko diru-sail bat xedatu da menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko langileren bat kontratatu behar duten familiei gastu horiek arintzeko. Laguntza bideratzeko araudi bat egingo da, eta kontuan izango dira, besteak beste, familiaren diru-sarrerak.

Bide batez, Zuiako udalerria osatzen duten kontzejuetarako laguntza eta diru-laguntzek, aurtengoan ere, ehuneko garrantzitsua izango dute diru-kontuetan, aurrekontu osoaren % 11ren ingurura iritsiko baitira.

Ingurumena

Jasangarritasuna eta ingurumenaren babesa ere lehentasun handiko atalak dira Zuian. Horren ondorioz, 20.000 euroko partida bat onartu da, hondakinen gestioari zuzendua, zati organikoaren kudeaketari zehazki. Besteak beste, herri-konpostaje gune berri bat jarriko da martxan Murgian, Bigilianon gaur egun daudenei gehituta. Era berean, etxe-konpostajea sendotzen eta zabaltzen jarraituko da.

Izan ere, udalak segitzen du eredu energetikoa aldatzeko eta eraginkortasuna areagotzeko 2013an hasitako bidearekin, gai horietarako 60.000 euro bideratuta. Aurtengo helburua da udal argiteria guztia aldatzea, ohiko sodio baporeko lanparak kendu eta led argiekin ordezkaturik (askoz eraginkorragoak eta gutxiago kutsatzen dutenak).

Bestetik, ur-horniduraren konponketak eta inbertsioak egingo dira; 88.000 euroko partida dago horretarako. Esate baterako, Giliernako ur-biltegia konpontzeko, arrakala eta akats ugari eta ponpatze-teilatuan arazoak baititu; 35.000 € inbertituko dira horretarako. Beste 53.000 euroak sarearen beste puntu batzuk konpontzeko eta inbertsio ezberdinak egiteko erabiliko dira.

Berdintasuna

Berdintasun teknikaria funtsezkoa izan da, Udal Berdintasun Plana eta Gorbeialdeko Kuadrillakoa ere garatu ahal izateko. Joan den urtean zehar, eskualdeko emakumeekin eta udal langileriarekin batera, hamaika jarduera, programa eta topaketa egin ziren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde. Berdintasuneranzko bidea jorratzeko, helburu hori lortzeko, jarduera eta ekintzak berriak egiteko, 7.000 euroko partida hornitu da.

Hezkuntza eta Kirola

Aurten handitu egin da, 7.000 €raino, ikasleen garraio gastuak diruz laguntzeko kopurua. Gainera, deialdi honetan lehenengo aldiz sartuko da azken urteetan jasotzen ari ginen eskaera bat; hain zuzen ere, unibertsitateko ikasleen garraio gastuena.

Halaber, udal kirolgunerako (20.000 euro) eta ikastetxe publikoetarako (10.000 euro) inbertsio batzuk onetsi dira. Aipatutako atalez gain, bailarako kultur taldeak eta kirol taldeak diruz laguntzeko partidak mantenduko dira.

Azkenik, 2 urtean behin gertatzen den moduan, 2019 honetan euskararen aldeko lasterketa egingo da. KORRIKAREN 21. edizioa izango da eta, berriro ere, Zuiak zeharkatuko du. Hori dela eta, 2.000 € esleitu dira gure udalerritik pasatzerakoan kilometro bat erosteko.

Udal App-a garraio bidea partekatzeko

2019 urterako aurrekontuaren barruan 2.000 euroko partida bat esleitu da, kotxea partekatzeko aplikazio bat sortzeko helburuarekin. Ideia, egin diren bileretan gazteek eta ikasleek proposaturik, App kolaboratzaile bat egitean datza, ordutegi bera eta helmuga bera duten pertsonak garraio bidea partekatzeko aukera izateko. Eta gastuak ere banatu ahal izateko, jakina.

Udalaren asmoa da hurrengo hilabeteetan aplikazioa garatzea. Proiektua aurrera doan ahala zabalduko da, ohiko bideetan:

Zubia aldizkaria, www.zuia.eus udal webgunea, Facebook (www.facebook.com/ZuiakoUdala) eta Twitter (@ZuiakoUdala) bidez.



#Galdeketa #UdalKudeaketa eta #ZuiakoEtorkizuna

Zuiarrek udal kudeaketa onetsi dute, nota onarekin gaindituta

Inkesta baten bidez, herritarren iritzia bildu da, udalaren lanaz eta etorkizuneko erronkei buruz

Bailarako herritar gehienek onetsi dute udal kudeaketa. "1etik 10era, eta azken legealdietan egindako lan orokorra kontuan hartuta, zer nota jarriko zenioke udalari?" galderaren aurrean, erdiak baino gehiagok, elkarrizketatuak izan diren %53ak, oso ongi bat jarri du (7 eta 8 arteko nota). % 27'5k, bere aldetik, 5 bat edo 6 bat jarri du. Eta beste % 9'2ak "bikain" bat merezi duela uste du. Aitzitik, % 2'6k gaitzetsi du azken urteetako udalaren lana.

Ikerketan galdetu da, aldi berean, zeintzuk diren Zuiako etorkizuna gidatu behar duten lehentasunak. Edo, beste era batean esanda, zer landu behar den udalerrriak hazten eta hobetzen jarrai dezan. Erantzunetan, gehiengo handi baten ustez, erronka nagusiak hurrengo hauek dira, ondorengo hurrenkeran: osasuna, ur-horniketa eta heziketa. Gazteek etxebizitza, euskara, eraginkortasun energetikoa eta hondakinen kudeaketa gehitu dizkiote zerrendari.



Zuiarren ustez, azken legealdietan udala lan ona egiten ari da. Eta jarri dion batz besteko nota "oso ongi" da. Adinaren arabera taldeei erreparatuta, nahiz eta segmentu guztietako balioespenak onak diren, pertsona nagusiak dira udalari puntuazio altuena ematen diotenak. Udal kudeaketari buruzko herritarren ezaguerari dagokionez, % 63ak pentsatzen du informatuta dagoela, eta nahiko ondo ezagutzen duela udaletxean egiten den lana. Hala eta guztiz ere, gazteen segmentuak bere burua gutxiago informatuta ikusten du. Argudiatzen dituzten arrazioen artean, %40k esan du ez duela interesik udal kontuetan, eta %24k dio ez duela

informaziorik jasotzen, udalaren komunikazio bideak ezagutzen ez dituelako.

Gardetasuna

Gardetasunaren gainean berariazko galderak eginda, % 46k hobetu behar dela uste du. Eta proposatzen dute kale informazioa indartzea, eta IKTen erabileraren aldeko apustua egitea (IKTak dira informazio eta komunikazio teknologiak, besteak beste, posta elektronikoa, webguneak, Facebook edo Instagram bezalako sare sozialak, publizitatea...). Azken urte hauetan, udalaren aldetik garrantzi handiena izan duten gaiak zein izan diren



galdetuta, hurrengo hauek aipatu dituzte, agertzen diren ordenean: ur-hornidura, osasun zentroa, heziketa eta ikastetxeak.

Gainera, uste dute lehentasuneko zereginak izaten jarraitu behar dutela udal politikaren barruan. Berriz, gehiengoak uste du etxebizitzari jarritako arreta ez dela nahikoa izan, eta ehuneko handi batek (% 60ak) adierazi du ez dituela ezagutzen alokairurako udal laguntzak eta ezta beharren errola ere. Nabarmenezkoa, era berean, giza zerbitzuei eta berdintasun politikari dagokionez erakusten duten ezjakintasun handia. Erdiak baino gehiagok esan du ez dituela ezagutzen hezkidetzak, tailerrak, Berdintasun Plana eta ahalduzko eskola. Puntu honetan

azpimarratu behar da ezjakintasuna askoz handiagoa dela gizonen artean emakumeen artean baino: %62a eta %38a, hurrenez hurren. Bukatzeko, hurrengo gai hauetaz ere iritzia eskatu zaie: energia aurrezteko neurriak eta hondakinen kudeaketa, hirigintza eta azpiegituren hobekuntza, kultura kudeaketa eta euskararen egoera. Gehiengoak erantzun du aipatutako arloetan udalak egindako lana ezagutzen duela eta arrakasta maila handia dela, baina lanean jarraitu behar dela hobetzeko. Deigarria da, hala ere, euskara atalean, 10 pertsonatik 4k esaten dutela Zuiako Euskaraz eta euskararen inguruko gainerako programazioa ez dutela ezagutzen.

Zergatik galdeketa bat?

Zuiako Udalak ezagutu nahi du, bertatik bertara, zein diren herritarrek kezkatzen dituzten arazoak, zein gabezia ikusten dituzten gure udalerrian, zein norabide ikusten dioten bailararen etorkizunari eta nola baloratzen duten azken urte hauetan udalak egin duen lana. Eta egiteko modurik onena herritarrei zuzenki galdetzea izan da. Horretarako kontratatu du Hiritik At tokiko garapen komunitarioan espezializatutako kooperatiba.

Adituek 2018ko azken hilabeteetan eta 2019ko lehenengoetan egin dute lana, haraneko herri guztietako 153 zuiar elkarrizketatuz. Adinari begira, 3 talde sailkatu dituzte: gazteak (15-34 urte bitartekoak), helduak (35-64) eta adineko pertsonak (64 urte baino gehiago). Landa lana egin ondoren (galdeketa telefonoz eta era presentzian eginda) eta emaitzak aztertuta, pasa den martxoaren 22an ondorioak aurkeztu zizkieten zinegotzietan, udal batzorde batean.

#KulturEtxea edo #AlokairukoEtxebizitzak

Domingo de Sautu 22 eraikinaren erosketa

Udalak erosi du, 300.000 euro ordainduta

Pasa den abenduan, Zuiako Udalak Domingo de Sautu kaleko 22 zenbakian, Oregi Etxearen ondoan dagoen eraikina erosi zuen. Etxetzar zahar bat da, ia 4.000 metro karratuko lursail batekin eta, udal jabetzara pasatzeko, 300.000 € ordaindu ditu udalak. Eskuraketarekin, Murgiako erdialdeko guneko honetako orube guztien erosketaosatzen da. Horrek ahalbidetuko du zonaldeko etorkizuneko garapena planifikatzea, beharren arabera.

Domingo de Sautu kaleko etxearen erabilera ez dago erabakita oraindik eta 2 aukera begiesten dira. Batetik, eraikina Zuiako Kultur Etxea bihurtzea. Aukera honek Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren diru-laguntza bat dauka, erosketaren % 50a ordaintzeko, hain zuzen ere. Beste proposamena da etxetza gizarte alokairuko etxebizitzak bilakatzea. Erabilerarik egokiena erabakitzeko, arkitekto bulego bat kontratatu du udalak, ikerketa tekniko bat egiteko. Eraikinaren ezaugarriak eta Kultur Etxeak eskatuko lituzkeen beharrak ikusita, txostenak gomendatzen du etxebizitzaren aukera. Erabakia denbora gutxi barru hartuko da.



#AuzoKonpostajea

San Martin kaleko lurperatutako edukiontzien berritzea

Murgiako San Martin kaleko lurperatutako edukiontzien zonaldea hobetzeko ekimenik onena zein izan daitekeen luzaroan baloratu ondoren, eta zein hondatuta dauden ikusita, erabat berritzea erabaki da. Azpiegitura berria leku horretan bertan kokatuko da, mekanismo eta diseinu berria dauka, lurperatutako edukiontzien hermetikotasuna eta kanpoko elementuek denboraren iraganari dioten erresistentzia bermatzen dituena. Lana Equipos y Servicios del Nordeste S.L. enpresari esleitu zaio, 45.526 euroan. Asmoa da apirilaren amaieran obra bukatuta egotea.

Udaletik dei egiten dugu edukiontzi hauek erabiltzen dituzten pertsonak erabilera egokia egin dezaten eta arau minimoak bete ditzaten, hondakinak kanpoan ez uzteko.



#OsasunZentroBerria

Foru Aldundiak, azkenik, baimena emango omen du Osasun Zentro berrirako

5 haritz babesteko enpeinuak, proiektuaren kokapena lekuz aldatzera behartzen du

Negoiazio luze baten ondoren, eta behin arazoak eta geldialdiak gaindituta, Osasun Zentroa gero eta hurbilago dago. Joan den otsailaren 21ean, osoko bilkurak nahitaezko aldaketa urbanistikoa onartu zuen, Osakidetza 1.600 metro karratuko Bigiliano eta Palatu artean dagoen udal partzela utzi ahal izateko. Bertan eraikiko da zentro berria, haranak gaur egun dituen beharretara egokitua eta kalitatezko zerbitzuak eskaini ahal izango dituena. Proiektuaren izapidea luzea eta korapilatsua izan da. Aldizkari honen aurreko zenbakian esan genuen bezala, eskaera ugari eta hainbat bilera egin ondoren, 2017an udalak Osakidetza zuzendaritzarekin akordio bat lortu zuen, aipatutako udal-lursaila uzteko. Bere aldetik, Euskal Osasun Zerbitzuak gaur egun sufritzen ditugun eskuragarritasun falta, espaziorik eza eta osasungarritasun arazoak gaindituko dituen zentro berri bat eraikitzeke konpromisoa hartu zuen. Hitzarmena sinatuta, Osakidetza zuzendaritzak eta Murgiako zentroko langileek zentro berriak artatu behar zituen beharrak eta eraikinaren kokapenik hoberena zehaztu zituzten. Lanen hasiera ere planifikatu zen: 2018ko uztaila. Hala ere, udala izapide urbanistikoa egiten ari zenean, Arabako Foru Aldundiak ingurumen-inpaktua aztertzeke txosten bat sartu zuen tartean. Txostenaren arabera, eraikina ezin zen aukeratutako lekuan

kokatu, lursailean zeuden 5 haritz mantendu behar zirelako. Horren ondorioz, eraikina partzelako leku altuago batean jarri behar zen, eskuragarritasuna kaltetuz: zentrorra sartu ahal izateko, erabiltzaileek - osasun-arazoak dituzten pertsonak, higikortasuna murriztutakoak...- Murgian dagoen aldapa bakarretik joan behar izango zuten.

Balio berezirik gabeko haritzak

Udalak, diputazioko teknikariek eta Ingurumeneko zuzendaritzarekin hainbat bilera izan zituen, babesteko balio berezirik gabeko zuhaitzak direla adierazteko, aditu independenteek egiaztatu zuten moduan. Horren proba da, gainera, ez direla aipatzen eta ez daudela katalogatuta inolako dokumentu ofizialetan. Hala ere, azalpenek ez zuten ezertarako balio izan, eta Foru Aldundiak jarrera mugiezina mantendu zuen.

Gauzak horrela, eraikinaren kokapenak aldaketa jasan du, eta zentroa eraikiko da haritzen enborretatik gutxienez 15 metrotara. Erabaki hori, otsailaren 21eko bilkuran onartutakoa, Diputazioko Hirigintza sailak berretsi behar du. Artikulu hau irakurtzen ari zaren unean izapide hori gaindituta egotea espero dugu eta, horrela, Osakidetza obrei hasiera ematea. Aurreikusitako lanen epea 10 hilabetekoa da.



Osasun Zentro berriaren kokapena.

Osasun Zentro berria solairu bakarreko eraikina izango da, eta bereizitako zatiak izango ditu: Haurren Arretarako eremu bat, Helduentzako Erizaindegia eta Medikuntza. Horrela, pribatutasuna eta zabaltasuna hobetuko dira. Eta langileek zaintzarako leku propio bat ere izango dute (Zuia eskualdeko herriburua delako).

#ZikloKrosTxapelduna

Javier Ruiz de Larrinaga Ibañez de Elejalde

“Kostatu zait agur esatea, baina nire (bizitzako) 39 urteetan hartu dudan erabakirik egokiena da”



Argazkia: Larrinaga artxiboa.

15 urte eman ditu profesional moduan - 2 errepidean eta 13 lokatzetan borrokan- . 300.000 km baino gehiago korritu ditu, 8 aldiz munduari buelta. 80 lasterketa irabazi ditu, Espainiako 5 Txapelketa eta Euskadiko 4 barne. Eta gozoa baino gozoagoa izan zen Luxemburgoko Mundu txapelketako 16. postua. “Lehenengo 20en artean sartzea oso garrantzitsua izan zen. Onenen ondoan egon nahi nuen eta urte askotako lehia horrek saria lortu zuen lasterketa horretan. Lortu nuen asko borrokatu, inbertitu eta gero. Nire apustu pertsonala izan zen”, kontatu digu.

Txikitatik ibili da bizikleta gainean. Hurbil izan zuen beste txirrindulari handi baten eredia - Txutxin Ibañez de Loyoren iloba da- , eta beti izan du familiaren erabateko babesa. Inmaculada eta Pedro Joseren semea, Ainararen bikotea eta Ametsen aita, ‘Larri’ txapeldun bat dugu, unerik onenean bere etapa profesionalari ‘adio’ esan diona. “Nire 39 urteetan hartu dudan erabakirik egokiena da. Kostatu zait, fisikoki nire burua ondo ikusten nuelako, emaitzeekin, babesleekin... Baina uzteko modu onenik ez dago. Aho zaporerik onenarekin geratuko naiz. Oso amaiera polita da” dio, zoriontsu. Eta gauzak ondo egin dituela jakitearen lasaitasunarekin.

- **Zein duzu sentipen nagusia orain?** Arraroa da. Aurreko garaiaren amaiera bezala izan da: sariketarik amaitzen dituzu eta badator

atsedenaldia. Baina aldi honetan ez naiz itzuliko. Munduko txapelketaren ondoko astea oso berezia izan zen, eskerrak emateko prentsaurrekoa eskaini nuenean. Prestatzea asko kostatu zitzaidan, modu naturalean egin nahi nuen, inor ahaztu gabe, baina astuna izan barik. Lo-ordu asko kendu zizkidan. Eta, orain, jada txirrindularia ez naizela ohartzen naiz, baina zeharo sinetsi ezinik nago.

- **Hurrengo planak?** Familiarekin gozatzea ahalik eta gehien, eta bizikletan oinarritutako proiektuak egiten saiatzea, neska-mutilak ziklo krosetan hazten laguntzea. Zaila izango da, diziplina txikia baita. Baina agurrean esan nuen bezala, tematia izan nintzen, hobetzeko asmoarekin atzerriko lasterketara joan nintzenean, eta orain berdin.



Argazkia: Pello Osoro.

- **Bista atzera botatzen baduzu, zer aukeratuko zenuke?** 2004ko azaroaren 30a, errepideko profesional gisa lehenengo kontratua sinatu nuenean. Gainera San Andres eguna zen, etxean bazkaria genuen... sinestezina izan zen. Imajinatu!, kostatu zitzaidan profesionaletarara pasatzea, eta sinatetik nentorren! Izan ere, asko markatu ninduen Espainiako lehenengo Txapelketa irabazteak (Valladolid, 2009). Ziklo Krosetan sartzen zara bizikleta utzi nahi ez duzulako, eta Espainiako sari handiena irabazten duzu. Hor beste era batean pentsatzen hasten zara, etorkizunari begira.

- **Paseo bat dela dirudi, baina txirrindularitza sakrifizio handiko kirola da.** Bai, baina goizeko 6etan lan egitera joatea ere bai. Nire burua egoera horretan irudikatzen dut eta bizikleta nahiago dut. Eta oso egun gogorak daude, jakina. Neguan irteten zarenean eta ama hartzen duzunean bera kotxean eta zu atzetik joateko, elurra dagoenean... Nire ogibidea izan da txirrindularitza, baina inoiz ez dut lan bat bezala ikusi.

- **Zure bertuterik handiena?** Lasaitasuna, egoten jakitea. Txapelketak, azken finean, karrerak besterik ez dira, jendea oso urduri jartzen zen baina nik banekien aguantatzen, besteen akatsak irakurtzen. Haratago pentsatzea gustatzen zait, probaren gakoak aztertzea, akatsa non egin dudan aurkitzea... Eta une txarrak muturreraino inoiz ez eramatea. Eta ezta onak ere.

Ez naiz hodei artean ibiltzekoa, eta ezta lurra jotzekoa ere.

- **Zerk eragiten dizu umore ona?** Planak egin ahal izateak. Orain arte, astebururo txapelketa nuen. Edo bestela, nire burua zaindu beharra, lesioak edo gihar-minak ekiditeko. Orain bikotearekin, lagunekin gera naiteke. Hamaika gauza daude egiteko, topatu beharko ditudanak.

- **Eta txarra?**

...

- **Ezer ez?** Ez zait bururatzen. Haserretzea kostatzen zait, ez daukat jarrera txarrik inorekin, nahiz eta batzuetan gogoia izan. Aurpegiatu ere egin didate hori. Aguantatzekoa naiz, baina gero gauzak jakinarazketo momentua aurkitzen dut. Hori ere, bizikletak eman dit.



Argazkia: Alfonso Blanco.



Larrinaga artxiboa.

LARRINAGA CX II. KAMPUSA, irailean

“Lanean hasiak gara jada aurtengoa iaz baino hobeto ateratzeko. Asmoa da luzatzea, asteburuko 2 egunekoa oso motza geratzen baita. Iraileko lehenengo astean antolatu nahi dugu, astelehenetik ostiralera, klaseak hasi baino lehen. Eta asteburua libre, lasterketak egonez gero, neska-mutilek joateko aukera izan dezaten. Sarriako aterpetxekoekin hitz egiten ari gara, bertan errepikatzen. Eta berriro ere Zuiako Udalaren laguntza daukagu”.

#VirgendeOrolkastetxea

Irakurle lagun eta Ipuin musikalizatuak, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimen ezberdinak



Irakurketa, askotan, guraso eta irakasleen inposaketa gisa ikusten dute haurrek. Liburuak sor ditzaketan abentura liluragarriak deskubritzen laguntzeko, Virgen de Oroko ikasleagoak hainbat ekintza jartzen ditu martxan urtero

Irakurketa haurtzaroan hasten den zaletasuna da eta iruditzen zaigu, gaur egun, sekula baino arrisku handiagoa dagoela haurrek irakurketa guraso eta irakasleen inposaketa gisa har dezaten. Euren denboraren zati bat letra artean murgilduta ematen dute, baina irakurketak sor ditzakeen abentura liluragarriak bizi izateko ia aukerarik gabe.

Virgen de Oro ikastetxean, irakurzaletasuna bultzatzeko, ikasturte guztietan hainbat ekintza proposatzen ditugu. Aldizkari honetan, aurreko aleetan, horien berri eman dugu behin baino gehiagotan; esate baterako, 'Maleta bidaiaria' proiektua. Aurtegoan ere, beste batzuen artean, berri batzuk proposatu dira.

Irakurle lagun

Alde batetik, 'Irakurle lagun', ikaskideen arteko tutoretzan oinarrituta, lankidetzako ikaskuntza metodo bat da, bikoteen osaketan oinarritzen dena. Rolan banaketa eta helburu komun

bat ardatz hartuta egiten da eta irakurmena hobetzea du xedea. Bi ume elkartzen dira, maila ezberdinekoak, helduena arduratuko da bestearen zaletasunak kontuan izanda, ipuin bat aukeratzen. Bion artean irakurriko dute ipuina, batek irakurtzen duen bitartean, bestea erne dago, bestearen zain, bestearen erritmoa jarraitzen, bestearen doinuaz ohitzen... Zain egote horrek badakartza elkarrekiko ezagutza eta errespetua. Mailen arabera moldatzen da ekintza.

Ipuin musikalizatuak

Honetaz gain, 5. mailakoek ipuin musikalizatu bat prestatu dute Lehen Hezkuntzako 2. mailarentzat. Ipuinak kontatzea da ekintza honen helburu nagusia eta horretarako musika eta irudiak erabili dituzte. Literatura, musika eta irudiak, elkarrekin, errekurtsu oso baliagarri izan daiteke eta emaitza, oso erakargarria da. Ekintza hau, udal liburutegian egin dute eta gurasoak gonbidatu dituzte.


Gomendioak

Euskaraz

- Arraroa _ **Ainara Azpiazu** eta **Paula Estévez**
- Tigre batekin bizi_ **Harkaitz Cano, Maite Gurrutxaga**
- Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk _ **Joxe Azurmendi**
- 6012 _ **Karlos Linazasoro**
- Eskularru beltzak _ **Jasone Osoro**

Gastelaniaz

- Potosí _ **Ander Izagirre**
- La vegetariana_ **Han Kang**
- Pablo Diablo y el partidazo de fútbol _ **Francesca Simon**
- Te están robando el alma _ **Ian Svenonius**
- Los peores niños del mundo _ **David Walliams**



Gure aukerak

Gastelaniazko liburua

El color de las mareas,
Mikel Alvira

"Beatriz Tussaud zuen izena eta ez zen ezkondu bere bizitzako amodioarekin". Horrela hasten da eleberrri hau eta baita eskuizkribua ere non Joaquín gizon misteriosuak Nuriari kontatzen dion bere birramonaren benetako historia eta bere familiaren atlas harrigarria osatzen duten guztiena.



Euskarazko liburua

Argixorjin,
Esti Vivanco (idazlea) eta Josevisky (irudigilea)

Illarek zailtasunak ditu batzuetan zuzen ahoskatzeko; batez ere, jende aurrean irakurri behar duenean, eskolan esate baterako. Horregatik, alabari lagunduko dion logopeda bat etxera eramatea erabakiko dute gurasoek: Agate. Dena den, Agate etxera sartzen denetik, Illareri ez zaio parte onekoa iruditzen. Nikole bere adiskidearen eta kalean topatuko duen saguzarkume baten laguntzarekin, Illarek aurre egin beharko dio etxeko guztiak mehatxatzen dituen arriskuari.



#ZuiakoGauEskola_AEK-Euskaltegia

39 urte zuia, urkabustaiztar eta zigoitiarrak euskalduntzen



Azken hamarkadetan, 500 bat pertsona inguru murgildu dira euskarari **Zuiako Gau Eskola-AEK Euskaltegia**ren eskutik. Hau da, Zuia, Urkabustaiztar eta Zigoitiko helduak euskalduntzeko klaseak ematen dituen ekimena. Ikasturte honetan 3 talde ari dira: 2 Murgian, Oregi Etxean, arratsaldean eta beste bat Gopegin goizean. Guztira, 29 ikasle, adin eta maila ezberdinetakoak. Irakasle, koordinatzaile eta zonaldeko arduraduna Josu Aldama dugu. Eta berarekin jarri gara hizketan, datorren urtean 40 urte beteko dituen **Zuiako Gau Eskola** pixka bat gehiago ezagutzeko.

- Noiz eta nola hasi zineten? 1975ean fraileraren batek lehengo klaseak eman zizkien Pauletan gaztetxo batzuei. Baina berez, Gau Eskolaren lehenengo pausoak 1979-80 ikasturtean izan ziren, Izarra aldean. Bizitzera joandako bizkaitar batzuk, Enbeita familiakoak, hasi ziren klaseren batekin eta hortik hasi zen mugimendu txiki bat. Gero, 80tik aurrera, urte batzuetan klaseak egon ziren, beste batzuetan ez, eta apur bat gora eta behera egon zen. 90 - 92 urteetatik aurrera Gau Eskola finkatu zen, eta gaur arte.

- Zertarako jarri zen martxan? Franco hil zen urte horietan itxaropen leihorik bat zabaldu zen, eta gure hizkuntza berreskuratzeko nahia izan zen garai hartako motorra. Gero herri sentimendua ere bazegoen. Horiek izan ziren nolabaiteko hasierako helburuak, euskal kontzientziazio indartze bat. Gaur egun hasierako helburu horiek hor daude, eta horrez gain gaur duguna da motibazio praktikoa. Hau da, lan baterako behar duen jendea etortzen zaigu eta praktikotasuna behar dutenak ere bai.

- Hori da euskararen atea jotzeko gaur egungo arrazoiak? Oso motibazio anitza dago. Batetik,

ume txikiak dituzten gurasoak daude eta hor helburua da umearen ikas prozesuan lagundu ahal izatea. Bestetik euskara mundura hurbildu nahi duen jendea dago. Azken bi-hiru urte hauetan Alakantetik edo Valentziatik lanera etorritako batzuk gerturatu zaizkigu. Uste dut kalean hiztun paisaje bat ikusten dutela, karteletan, eta esaten dute "hemen zer dago? Ikasi behar dut!". Eta gero hizkuntza eskakizun bat lortu nahi dutenak; euskaltegian bertan B1 mailara arteko titulazioa eman daiteke, eta batzuk hurbiltzen dira lana dela edo oposizioak direla. Izan ere, beste fenomeno bat dugu azken urteotan: jubilatutak. Lan gutxi eta denbora librea dutenak hurbiltzen dira.

- Denbora luze honetan, zein izan da unerik bereziena? Batzuk egon dira; esaterako, 90. hamarkadan oso momentu gogorak bizi izan genituen, lokal eskasak ziren eta batailatxo bat izan genuen garai hartako udalarekin. Eskolako sotoetan ematen genituen klaseak, ez zegoen baldintzarik, ez aterik ez ezer... Baita ere, aipatu behar da garai hartan egiten zirela hainbat ekintza ikasleekin: gabonetako antzerkiak, komerkiak... euskara erabiltzeko moduak eskaintzen ziren, eta jendeak motibazio handia zuen. Geroxeago, 2000. urtean, Euskararen Eguna egin genuen, 20 urte bete zirenean. Hortik aurrera, Zuia Euskaraz; 2009an hasi ginen antolatzen eta herriaren beste sektore asko sartu ziren, folklorea, dantzak... eta azkeneko hamar urte hauetan bere lekua hartu du. Azkenik, Korrika dago. Aurten Zuia eta Urkabustaiztik igaroko da, goizaldeko 3rak aldera, eta hainbat kultur ekitaldi osatu dira (begiratu alboko orrian).

Info +: deitu 616 18 11 73 telefono zenbakira, Oregi Etxetik pasa edo Zuiako, Urkabustaizko edota Zigoitiko udaletxeetan bertan galdetu.



APIRILA

-  **4_ LABURBIRA**, euskarazko film laburren zirkuitua. 19etan, Murgiako Batzar Etxean. Korrika Kulturala. **Zuiako Udalak eta Zuiako Gau Eskolak antolatuta**
-  **6_ IRAUNGORRIKO MARIMIRI** antzerkia, Zurrunka taldearen eskutik
-  **7_ MUS TXAPELKETA**. 17:30etan, loar Tabernan
_SUKALDE TXIKI tailerra. 11:00etan, Bea Murgia Etxean. Eman izena aldean aurretik 945 43 01 67 telefono zenbakian
-  **10_ KORRIKA 21**. Zuian. 03:20an inguruan.

MAIATZA

- **5_ SUKALDE TXIKI** tailerra
- **6_ GORBEIALDEKO IRAKURLE KLUB FEMINISTA**. Gaztelaniaz. 20:00etan, Zigoitiko Kultur Etxean. **Eta hilaren 27an, Zuiako Udaletxean**
- **25_ ZUIAKO HERRI LASTERKETA**. La Blanca Atletismo Klubak antolatuta

EKAINA

- **2_ SUKALDE TXIKI** tailerra
- **7_ Gorbeialdeko Emakumeen Topaketa**. Urkabustaizko Kultur Etxean
- **23_ ROBERTO RUIZ MEMORIALA**. La Blanca Klubak antolatuta
_SAN JUAN SUA, 22:00etan
- **29_ ZUIA EUSKARAZ**. Adi egon! Programa www.zuia.eus udal webgunean eta sare sozialetan laster zabalduko da



Argazkia: **Patxi Giraldo**.

1_ Zure udalak erantzuten dizu

Udaleko arduradunekin hitz egiteko, azuia.general@ayto.araba.eus e-mailera bidali nahi duzun komentarioa. Edota pasa zaitez udaletxetik, utzi zure telefonoa eta deituko dizugu hitzordua emateko.

2_ Udalaren egunerokotasuna jarraitu Zuiako webgunean eta sare sozialetan

www.zuia.eus



3_ Intereseko telefonoak

Udaletxea: 945 43 00 05

Kiroldegia: 945 43 01 57

Osasun Zentroa: 945 43 00 30

Botika: 945 43 02 36

Guardiako botika: 636 59 30 13

Gizarte Laguntzailea: 945 43 04 60

Eguneko Zentroa: 945 43 03 75

Larrialdiak: 112

Turismo bulegoa: 945 43 04 40

Gorbealdeko Kuadrilla: 945 43 01 67